

Susan irakurtzen ari da. Bere sorbaldaren gainetik begiratzen dut: Odol hotzean-en 297. orrialdea da, eta bertan Perry Smithen, hots, hiltzailetako baten deskribapen bat dago: “Norabiderik gabe, maitasunik gabe hazi zela ematen zuen”.

–Bakarrik sentitzen naiz –esan diot.

–Ba irakurri zer edo zer –erantzun du orrialdea pasatu bitartean.


A. M. Homes.

Literaturaren erudituek aspertu arte aztertzen dute dena: teknikak, gaiak, oximorona eta metonimia, alegoria eta konotazioa; gako ezkutua eta inplikazio psikologikoak; pertsonaia arketipikoak eta haraindiko ideiak, eta auskalo zer gehiago. Kontua da irakurketaren plazera zikiratu egiten dutela –pixka bat soilik– haien bidearen erdian jar ez dadin, guri gogorazteko literatura ez dela jolas bat eta, oro har, bizitza ez dela txantxa bat.

Alabaina, Gogolen sudurrak, Yizharren kolore laranja, Yaakov Shabtaireren terrazako behiak eta osaba-izebek, are Kafkaren deabruzko zaldiek ere, [literaturaren emaitza] horiek guztiek alegia, hezkuntzaren fintasun ezagunak, informazioa eta gainontzeko guztia eskaintzeaz gain, plazeren eta jolas alaien mundu batera erakartzen gaituzte. Istorio hauetako bakoitzean onartzen zaigu “kanpoan” baimentzen ez zaigun zerbait: ez soilik ezagutzen dugun munduaren isla bat, ez soilik bidaia bat ez-ohikora, baizik eta baita “pentsaezina” ukitzeko lilura bera ere. Kontakizun baten barnean bururagarri bihurtzen da hori, ordea, gure zentzuentzat eta gure beldurrentzat eskuragarri, eta baita gure irudimenarentzat eta pasioentzat ere.

Irakurketaren jolasak aktiboki parte hartzeri behartzen du irakurlea, bere bizitza-esperientziaren eta inozentziaren ekarpena egitera, eta baita bere zuhurtzia eta maltzuratasunarena ere.

Amos Oz



Gasteizko Irakurle Kluba

2011 • 2012
ikasturteko egitaraua

geu
ELKARTEA



Pedro Asua, 2 - 3.a 01008 Gasteiz.
www.geuelkartea.com

Tel.-Faxa 945222153
geuelkartea@grn.es

Irakurketaren jolas hori dugu helburu Gasteizko Irakurle Klubean, eta, izan ere, Amos Ozek aipatzen duen hori baino ez dugu egiten: liburuak irakurri, liburuaz hitz egin. Ez zaizkigu sobera interesatzen literatur lanen azterketa eruditua, irakurleon esperientzia zuzena elkarrekin konpartitzea baizik. Hilean behin biltzen gara, beti ere euskaraz idatzitako edo euskarara itzulitako liburuen inguruan. Hemen duzu, beraz, 2011/2012 ikasturterako proposatzen dizugun irakurketen egitaraua. Gonbidatuta zaude.

2011/2012 koordinatzailea: Iban Zaldua

Urriak 6 ostegunarekin

Egitarauaren aurkezpena eta Harkaitz Canoren hitzaldia: “Literatura DJen garaian”.

Urriak 27 ostegunarekin

Uxue Apaolaza, *Mea culpa*, Elkar 2011.

Azaroak 24 ostegunarekin

Mohamed Xukri, *Ogi hutsa*, Igela 2010.

Abenduak 22 ostegunarekin

Toni Morrison, *Maitea*, Alberdania-Elkar 2005.

Urtarrilak 26 ostegunarekin

Joseba Sarrionandia, *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela 2010.

Otsailak 23 ostegunarekin

Primo Levi, *Hau gizon bat bada*, Alberdania 2011.

Martxoak 29 ostegunarekin

Patxi Iturregi, *Haize kontra*, Elkar 1996.

Apirila 26 ostegunarekin

Alice Munro, *Zorion handiegia*, Mettok 2011.

Maiatzak 24 ostegunarekin

Juanra Madariaga, *Eroriaren logika*, Susa 2009.

Ekainak 28 ostegunarekin

Ramon Saizarbitoria, *Martutene*, Erein 2012.

Lekua:

Ignacio Aldecoa Kultura Etxea

(Floridako ibilbidea, 9)

Ordua: 20.00



@GastIraKluba

